

Mondragon Unibertsitatea EuroBLECH 2016 azokan egon da

2016/11/02

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko "Materialen konformazioko prozesu aurreratuak ikerketa taldeko Joseba Mendiguren eta Lander Galdos azokan egon dira merkatuaren egoera ezagutzeko, produktu berritzaileen diseinu eta fabrikazioan aplikatu daitezkeen teknologia berriak identifikatzeko eta nazioarteko eta bertako partner-ak bisitatzeko.

Txaparen konformazioko makinen (profilatzeko-makina, prentsa, ebaketa lerroak eta bobinen prozesatzea, etab.) diseinuan eta disimilatutako materialen loturetan aurkitutako berrikuntzak mekanikako graduan eta masterrean klaseak emateko erabiliko dira.

